

PROGRAMAZIO LABURTUA

IKASTETXEAREN IZENA	I E S CRUCES/ GURUTZETA DBHI	200/-2008
ARLO / GAIA	EUSKARA	DATA: 07/10/10
ETAPA-MAILA	3DBH B EREDUA	

1	ARLOAREN GUTXIENGO HELBURUAK
	1.- Euskararekiko jarrera positiboa lortzea. 2.- Ahozko eta idatzizko berbaldiak lortzea. 3.- Ahoz zein idatziz koherentzia eta zuzentasunez adieraztea. 4.- Hizkuntzaren elementu formal eta mekanismoak ulertzea: maila fonologiko, morfosintaktiko, lexiko- semantiko eta testualetan.

2	EDUKIEN DENBORALIZAZIOA
ORD	1. ebaluazioa (46 ordu)
	- Izenordain zehaztugabeak. - Aditzaren aspektua. - Indikatiboaren birpasaketa, orainaldian. - Agintera - Deklinabidea: Nor-/Nork/ non/ nora kasuak - Hiztegia: Mendia, animaliak, lanbideak - Funtzioak: Informazioa eskatu eta eman, aginduak eman, ezeztapenak egin - Zehar lerroak: Gure ondarea, ingurugiroa, kontsumorako heziketa.
ORD	2. ebaluazioa (48 ordu)
	- Zenbatzaile zehaztuak eta zehaztugabeak. - Indikatiboaren birpasaketa: orainaldian. - Elkarkariak - Zehar estila. - Deklinabidea: Noren/Norekin/nondik/Norentzat/norantz/Noraino kasuak - Hiztegia: kostaldea, aleroketa, ekonomia. - Funtzioak: Harridura adierazi, aukerak eskaini, usteak adierazi. - Zehar lerroak: elakrbizitza, bide hezkuntza, bakerako hezkuntza.
ORD	3. ebaluazioa (48 ordu)
	- Posposizioak: buruz, bila, zain, begira - Indikatiboa: lehenaldia (hastapena) - Baldintza erreala - Denborazkoak - Deklinabidea: Partitiboa/ Nongoa kasuak. Beste guztien birpasaketa. - Hiztegia: lana, zerbitzuak, kultura - Funtzioak: Baldintzak jarri, zehaztapenak egin, ekintzak denboran kokatu. - Zehar lerroak: hezkuntza ez- sexista, osasunerako hezkuntza, kulturarteko hezkuntza

3	METODOLOGIA
Eragilea eta parte-hartzailea. Nagusiki, irizpide hauek izango ditugu gogoan: - Prozedurei garrantzi berezia ematea, alegia, gaitasun linguistikoei. - Ahozko hizkuntzari arreta berezia eskaintzea. - Arauek ikasteari eta kodeari baino garrantzi handiagoa ematea hizkuntzaren erabilerari. Honela, jarduerak planifikatzean, irizpide hauei jarraituko diegu: - Jardueren bidez komunikazioari dagozkion oinarritzko lau gaitasunak garatzeko aukera emango da: entzun, hitz egin, irakurri eta idatzi. - Jarduerak motibagarriak izan daitezen, komunikazioko egoera errealek proposatuko ditugu. Horrela, komunikazio prozesuetako etapak gelan bertan bizi ahal izango dituzte eta, era berean, euskaraz erabili ohi ditugun hizkera motak ezagutzeko aukera emango diegu. Batez ere testu osoekin lan egingo dugu; hala ere, zenbait eduki lantzeko esaldi solteetara joko dugu, hizkuntzari buruzko hausnarketa egin dezaten	

4	BALIABIDEAK
TESTU LIBURUA: Goazen 3 Argitaletxe desberdinetatik ateratako materialekin lan egingo dugu. Liburuxkaren bat irakurri beharko du kurtsoan zehar, baina oraindik izenburua erabaki gabe dago.	

5	EBALUAZIOA: TRESNAK, EBALUAZIO ETA KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK
---	--

• Jarraipeneko eta etengabekoa: • Kontzeptuetako edukiak ebaluatzeko azterketa idatziak egingo dituzte, bat unitate bakoitzeko gutxienez. Ortografiari sail berezia eskainiko diogu testen bidez. • Prozeduretako edukiak ebaluatzeko klaseko zein etxeko eguneroko lanaz baliatuko gara, koadernoaren antolaketa, klaseko mintza-saioak, irakurmen liburuetako lanak etabar aintzat hartuz. Jarrerako edukiak ebaluatzeko, berriz, partaidetasuna eta erakusten duten interesa, irakasgaiarekiko atentzioa, ikaskide eta irakaslearekiko errespetua eta begirunea, eskuzabaltasuna besteei laguntzeko orduan... izango ditugu gogoan. Orokorrean, hobetzeko egindako ahaleginak					
KALIFIKAZIO BALIO PORTZENTUALA:	KONTZEPTUAK %50	PROZEDURAK	% 30	JARRERAK	% 20

6	BERRESKURATZE SISTEMA
Euskara arloan ebaluazioa jarraia da, beraz, suspenditutako ebaluazioa automatikoki berreskuratuko da hurrengo ebaluazio bat gainditzean. Helburuen lorpen eskasa gertatuko balitz egoeran bertan beste azterketa baten bidez edo lan osagarrien bidez helburu horien lorpena errezagotzen saia gintezke	

